

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Rah, Rah, Rah, kirol berria sortu da!

WWW.STEELERETTES.COM



Ezkerrean, Pittsburgheko Steeleretteak 1968an. Azpian, Johnny Campbell, lehen cheerleadertzat jotzen dena, 1898an Minnesotako amerikar futbol taldea animatzeko egin zuen ahaleginagatik.



PITTSBURGH (AEB), 1961. Hiriko Steelers amerikar futboleko talde profesionalak Robert Morris institutuan ikasten zuten zortzi neskato hautatu zituen, NFLko frankizien lehen cheerleader edo animatzaile taldea osatzeko. Steelers taldeak ez zuen ia zalerik, estadiorik ere ez, eta kirol emaitza kaskarrak ere ez zituzten lagun, horregatik erabaki zuten Steeleretteak martxan jartzea. Animatzaile taldea 1969an desagertu zen, itxura denez, bere helburua erabat bete gabe; Pittsburgheko futbol taldea 70eko hamarkadan hasiko zen nabarmentzen, Steeleretteen animoak jasotzeari utzi zionean, hain zuzen. Baina zortzikotearen eskutik, jardura bitxi horrek profesionaltasunerako jauzia egin zuen.

Hori baino lehen, cheerleaderrek bide luzea egin zuten AEBetako unibertsitateetan. XIX. mende amaieran Princetoneko ikasle Thomas Peebles-i unibertsitateko kirol taldeak animatzeko eta ikusleak motibatzen jarduerak antolatzea bururatu zitzaion. Baina ideia gauzatzen lehena Minnesota Unibertsitateko Johnny Campbell izan zen. 1898an Minnesotako amerikar futbol taldeak

Northwestern taldearen aurka jokatu zuen eta Campbellek aurrez prestatutako leloa kantatu zuen jendaurrean: "Rah, Rah, Rab! Ski-U-Mab! Hoo-Rab! Hoo-Rab! Varsity! Varsity! Minn-e-sotab!". Leloen maila literarioak ez du mende osoan bilakaera handirik izan, baina beste elementu batzuk asko aldatu dira.

Hasieran gizonezkoek soilik parte hartzen zuten animatzaile taldeetan. Baina 1923an emakumezkoek ere baimena eman zieten. Gainerako kirol jardueretan parte hartzerik ez zuten, ponponak astintzen hasi ziren buru-belarri, eta 1940rako cheerleader gehienak emakumezkoak ziren.

1948an NCA sortu zen, AEBetako Cheerleader Elkarte Nazionala, eta 30 urte geroago lehen cheerleader txapelketa antolatu zuten. Orduz geroztik, beste kirol taldeetako loturarik gabeko cheerleader talde independenteak sortzen hasi ziren, jardura gimnastikoak gero eta konplexuagoak bilakatu ziren, eta animatzea kirol olimpiko izenda dezaten eskatzen duten lehen ahotsak ere entzuten hasi dira.



Arrastoak

50 urte Indalecio Prieto politikari bizkaitarra hil zela

INDALECIO PRIETO duela 50 urte hil zen, 1962ko otsailaren 11n, erbestean, Mexikon hain zuzen, eta, urteurrena aitzakia, EHUK eta Eusko Ikaskuntzak politikariari buruzko jardunaldiak antolatuko dituzte otsailaren 22 eta 23an, Bilboko Bizkaia aretoan. 1883an Oviedon jaio arren, txikitatik Bilbon bizi izan zen, bertako zinegotzia izan zen, eta Espainiako Gortean ere zazpi legegintzaldiz Bizkaia ordezkatu zuen.

Jardunaldietan XX. mendeko euskal politikaririk nabarmenetakoak Errepublikarekin, euskal nazionalismoarekin edo komunismoarekin izan zuen harremana jorratuko da, baita sozialismoari egindako ekarpena ere.



HOY.ES

Indalecio Prietori buruzko jardunaldiak egingo dira, bere heriotzaren 50. urteurrenean.